

2002KO ABENDUAREN 19KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta biko abenduaren hemeretziaren, iluntzeko zazpiretan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakartzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia eta Juan Manuel Serna Portugal.

Joseba Hernandez Madinabeitia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, esaten du presakazko izaeraz lehengo asteartean gertatutako atentatuaren gaitzespen mozioa tratatzea planteatzen duela. Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunez, onartu egiten du.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du beraiek gaur, arratsaldeko 6etatik 8etara, geldialdia egiteko deialdia egina dutela eta beraz atera egingo direla. Gaineratzen du zortziretan bilkurak jarraitzen badu, bertaratuko direla berriro. Hori esan ondoren, bera eta Agirre zinegotzia altxatu eta aretotik irten egiten dira.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2002ko urriaren 31an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ERREKA BERRESKURATZEAREN PROIEKTUA BEHIN-BETIKOZ ONARTZEA.-

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2002ko uztailaren 18an egindako batzaraldian, "Lazkaon Agauntza erreka zati bat ingurune aldetik berreskuratzeko Proiektua (2. fasea)" haserako izaeraz onartzea erabaki zuen.

Proiektua jendaurrean eduki da 15 lanegunez eta denboraldi horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hori horrela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, proiektua behin betikoz onartzea erabakitzen du.

...///...

IV.- SAN JOSEKO BERRURBANIZAZIO OBRAREN 3. ETA 4. ZERTIFIKAZIOAK.-

San Joseko Berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman INJELAN, S.L. enpresako Iñaki Laskurain Gisasola iningenioak lanen hirugarren eta laugarren zertifikazioak aurkeztu ditu. Hirugarren zertifikazioa EHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI MILA BERREHUN ETA BAT EURO ETA BERROGEI ZENTIMOtakoa (169.201,40 €) da eta laugarrena berriz LAUROGEITA ZAZPI MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EUROtakoa (87.470,00 €).

Zertifikazioak aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaraturtako bere partaide guztien aldeko botuarekin, berauek onartzea erabakitzen du.

V.- GERONTOLOGIKOA EGITEKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN-BETIKOZ ONARTZEA.-

Udal honek Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala izapidatu du 6 Hirigintz Areak Gerontologi etxe baten eraikuntza ahalbidetzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2002ko abenduaren 17an egindako batzarraldian onartu du behin betikoz Aldaketa Puntual hau.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak emandako 6 Hirigintz Areako Gizarte Ekipamenduaren Sistemari (Zubizkitza gunea) dagokion Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren behin-betiko onarpen honekin herri erabilera aitortpena egina dagoela jotzen da.

2002ko urriaren 24ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, Alkatetzak, 6 Hirigintz Areak gerontologi etxe bat eraikitzean datzan sorospen ekipamendu berri baten proiektua garatzeko ondasun eta eskubideen zerrenda haserakoz onartzea eta Derrigorrezko Jabetza Kentze Legearen 18. artikuluan adierazi moduan erabakia argitaratzea eta espedientearen interesatu moduan azaltzen diren guztiei banan banan jakinarazpenak egitea ebatzi zuen.

Ebazpena 2002ko azaroaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta interesatuei banan bana jakinarazi zitzaion.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean alegazio idatzi bakar bat jaso da, Josefa Iraola Mujika A.k izenpetutakoa.

Alegazio idatzi horren aurrean udal aholkulari den Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak bere txostena egin du. Txostenak zera dio:

Abiapuntu gisa, esan behar da Hiri Antolaketa eta Lurzoruaren Erregimenari buruzko Legearen aplikazio eta garapenerako Planeamendu Arautegia onartzen duen uztailaren 23ko 2.159/1978 Erret Dekretuaren 123 eta ondorengo artikuluetan xedatutakoarekin bat, Lazkaoko Udalak "6 H.A. ekipamendu komunitario sistemari buruzko Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala" behin behingoz onartzeko akordioa hartu du eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidali, bere izapidatze eta behin-betiko onarpenerako.

Hau honela eta planteatutako lehenengo gaiari erantzunez, esan behar da, ondasun eta eskubideen zerrenda behin-betikoz onartzeko aurrez aipatu hirigintz instrumentuaren behin-betiko onarpena emanda egotea exijitzen badu ere, hartu den erabakiak espedienteari hasiera emateko egintza izapide izaera duela soil-soilik eta berau hartzeko ez da beharrezkoa aurrez aipatutako baldintza.

...///...

...///...

Ondorioz, ez dago eragozpenik, planeamenduko dokumentuaren behin-betiko onarpena baino lehen, ukitutako ondasun eta eskubideak banan-banan zehaztutako zerrenda azalduta jabetza kentze espedienteari hasiera emateko.

Era berean ezadostasuna adierazi behar da, alegatzaileak, ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzearen akordioak aurrez planeamenduko dokumentuari behin-betiko onarpena eman izanaren argitalpena exijitzen duela adierazten duenean. Are gehiago, ondasun eta eskubideen zerrendaren behin betiko onarpenak ere ez du behar aipatzen duen argitalpena, gauza ezberdinak bai dira egintzaren exekutibitatea eta eraginkortasuna, azken hau apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurrikusten den argitalpenetik eratorritakoa.

Bigarren apartadu batetan Iraola A. gerontologi etxeari buruz, beste kokapen batean daitekeela adierazten du. Honi buruz, esan behar da, kokapen hori ez zehazteaz gain eta ondorioz, bere egokitasunari buruz azaltzea ezinezkoa izan, Arauaren aldaketa puntualaren dokumentuaren izapidatzean eztabaidatu eta erabakitako gaia izan dela.

Azkenik, eta jabetza kentzeak sortzen dizkion kalte eta galerak, esan gauza horiek justiprezioa zehazte fasean baloratu beharreko gaiak direla.

Ondorioz alegazioa gaitzestea proposatzen da.

Guzti honen aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Josefa Iraola Mujika A.k aurkeztutako alegazioa gaitzestea.
- 2.- 6 Hirigintz Arian gerontologi etxe bat eraikitzean datzan sorospen ekipamendu berri baten proiektua garatzeko ondasun eta eskubideen zerrenda behin-betiko onartzea. Onartzen den zerrenda honako hau da:

1 zki.dun Finka

Higiezinaren deskribapena: Zubizkitzako gunen berdearen parean, bidearen beste aldean kokatutako landalur izaerako partzela. Bere mugak ondorengoak dira: Iparraldetik Jose Cruz Barandiaran Aldasororen lursaila eta errepeidea; Hegoaldetik Agustin Apaolaza Esnaola eta Victoriana Zabaleta Jauregiren lursailak; Ekialdetik Josefa Iraola Mujika, Jose M^a Insausti Iraola eta Miguel Izagirre Auzmendiaren lursailak, eta Mendebaldetik Pia Dorronsoro Intsausti eta Martin Insausti Saizar-en lurak.

Jabea: Francisco Javier Agirre Begiristain.

Okupatuko den azalera: 814,40 m²

Katastroko erreferentzia: Lazkaoko landalur katastroko 7. Poligonoko 19. Partzela.

2 zbk.dun Finka

Higiezinaren deskribapena: Zubizkitzako gunen berdearen parean, bidearen beste aldean kokatutako landalur izaerako partzela. Bere mugak ondorengoak dira: Iparraldetik errepeidea; Hegoaldetik Fco. Javier Agirre Begiristain eta Jose M^a Insausti Iraolaren lurak; Ekialdetik errepeidea, eta Mendebaldetik Fco. Javier Agirre Begiristainen lursaila.

...///...

...///...

Jabea: Josefa Iraola Mujika.

Okupatuko den azalera: 2.374,78 m²

Katastroko erreferentzia: Lazkaoko landalur katastroko 7. Poligonoko 468. Partzela.

- 3.- 1954ko abenduaren 16ko Derrigorrezko Jabetza Kentze Legeak bere 52. artikuluan xedatutakoaren babesean, ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa egiteko Eusko Jaurlaritzari presakazko aitorpena onar dezala eskatzea.

VI.- ELOSEGI 20-28KO URBANIZAZIOA BEHAR BEZALA OSATZEKO HIRIGINTZ HITZARMENA.-

Alkateak adierazten du Elosegi 20-28 guneko urbanizazio proiektuan aurrikusten den bideak 1 Sektoreko zati bat hartzen duela baita ere eta 1 Sektorea oraindik garatu gabe dagoenez, zati horren jabea den Salome Apeztegia San Roman A.rekin elkarriketak izan direla gune horren urbanizazioa behar bezala amaitzeko bide hori bere osotasunean burutzea ikusten delako irtenbiderik egokiena.

Hori horrela Salome Apeztegia San Roman A.rekin hirigintz hitzarmena izenpetzea proposatzen da. Hitzarmen horren puntu nagusiak honako hauek lirateke:

- 1.- Salome Apeztegia San Roman A.k Elosegi 20-28 eta 1 Sektoreko lurak hartzen dituen bidea behar bezala burutzeko beharrezko diren lurak okupatzea baimentzen du. Okupatu beharreko azaleraren zehaztasuna berarekin adostasunean egingo litzateke.
- 2.- Lazkaoko Udalak azalera hori herri erabilera ibilgailuentzako bidetarako zuzenduko luke.
- 3.- Lazkaoko Udala, 1 Sektoreko garapen eta kudeaketa dokumentuetan, okupatzen den azalera Salome Apeztegia San Romanen jabetzako bezala eta dagokion aprobetxamendua berari aitortzera behartzen da.
- 4.- Lazkaoko Udalak Apeztegia A.ri, baratza erabilera duen eta Orobione Etxearen inguruan aurkitzen den udal jabetzako lursail bat uztiko dio prekarioan. Gaur egun baratza hori hirugarren batek erabiltzen duenez, Apeztegia A.ri prekarioan erabiltzeko emate hori gaur egun darabilen prekariozaleak erabiltzetik uzten duen kasuan bakarrik gertatuko da eta Lazkaoko Udalak beste erabilera batzuetarako behar duen arte luzatuko da denboran.

Honen aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Elosegi 20-28 eta 1 Sektoreko gunea hartzen dituen bidea bere osotasunean burutzeko behar diren lurak eskuratzearen, Salome Apeztegia San Roman A.rekin izenpetu beharreko hirigintz hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.
- 2.- Aurreko puntuan onartutako hirigintz hitzarmena izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

VII.- 2003KO AURREKONTUA.-

Alkateak onarpenera aurkezten den aurrekontuaren azalpena egiten du. Esaten du aurrekontu hau guztira 3.758.160,00 € eurotakoa dela; jarraian gastu eta diru-sarreraren

...///...

...///...

kapitulukako laburpenaren zehaztapena egiten du. Esaten du baita ere aurreko urtean hartutako konpromezuak mantentzea dela helburua eta horretarako orain aurrekontu sarrerak aukera ematen duten adinako inbertsioak aurrikusi direla eta aurtengo aurrekontuaren likidazioa egiten denean, aurrikusten den gerakinarekin aurtengo adostutako gainontzeko inbertsioak gehitzea dela nahia.

Aurrekontu zenbakiekin batera Aurrekontu-Exekuziorako Udal Arauaren azalpena egiten du, bere espedientean dagoena, eta gastu eta sarreren zenbakizko partidekin batera onarpenera jartzen da baita ere. Aurrekontu-Ezekuziorako Udal Arau honetan, besteak beste, gastuetako partiden arteko lotespena, kreditu transferentzi bidezko kreditu aldaketak egiteko eta kreditu zabalkorrak izendatzeko ahalmena zehazten da, hala nola kreditu gerakinen txertaketak onartzekoa eta konpromezu kredituak eta urtez urteko zenbatekoen zehaztapena ezartzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontuko inbertsioetan ados egon baldin badaitezke ere, Udalbiltzarentzat izendatzen den partidak udal aurrekontua baldintzatu egiten duela eraikuntza nazionaleko izaera emanaz eta horregatik beraiek aurka bozkatuko dutela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, EA) eta aurkako botu batez (PSE-EE) honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2003 urterako udal aurrekontua haserako izaeraz onartzea. Aurrekontu honen sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

2003KO AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	801.800,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	62.260,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	582.130,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.962.070,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	44.240,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	1.870,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	303.790,00 €
SARRERAK GUZTIRA			3.758.160,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	880.050,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAS-	1.223.410,00 €
IV	KAPITULUA	TUAK	458.660,00 €
VI	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.089.400,00 €

...///...

...///...

VII	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	106.640,00 €
		KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	
		GASTUAK GUZTIRA	3.758.160,00 €

Bigarrenen.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrenen.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VIII.- 2003 URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik, Osoko Bilkurara aurkeztu da bere onarpenerako 2003rako Udal Langileen Plantilla Organikoa, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, Plantilla Organiko hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

IX.- 2003 URTEKO LANPOSTUEN ZERREDA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik, Osoko Bilkurara aurkeztu da bere onarpenerako 2003 urteko Udal Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, Lanpostuen Zerrenda hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

X.- 2002-2003 URTEETARAKO UDAL LANGILEEN LAN BALDINTZAK.-

Estensoren zinegotziak, pertsonaleko batzordeko presidente gisa, esaten du 2002-2003 urteetarako udal langileen lan baldintzei dagokionean, Euskadiko Toki Administrazioaren langileen lan baldintzak adosteko instituzio eta sindikatuen artean izandako bileretan ez dela akordiorik lortu eta EUDELEK EAJ, PSE-EE, EA eta PP alderdi politikoen artean lortutako akordioa bidali duela udaletara, udaletako osoko bilkurek hau onar dezaten eta hori dela onarpenera aurkeztu dena.

Esaten du baita ere langileekin izandako elkarrizketetan, beraiek hauen lanpostuen balorazioa egitearen proposamena egin dutela eta honen aurrean bi puntu azpimarratu nahi litzatekeela: bat, lanpostuen balorazioarena konbenioarekin ez lukeela lotzea nahi, nahiz eta politikoki gai honi heltzeko borondatea azaltzen duten. Horretarako oraingo legegintzaldian lanpostuen antolaketaren berrikuskaketa egingo litzateke eta datorren legegintzaldian azterketa honen ondoriozko emaitzaren baloraketa egingo litzateke. Bestalde, esaten du Estensoren zinegotziak, langileekin izandako elkarrizketetan bai ados agertu direla konbenioa udal bakoitzak negoziatu behar izatea ez dela bidea esaterakoan eta alde horretatik nahiago dela akordio txar bat akordiorik ez izatea baino. Horregatik bai EUDEL bai sindikatuak idatzi bat bidaltzea planteatzen da hori adieraziz. Bukatzeko, esaten du, etorkizunean EUFALEBA errekuuperatuko balitz, udal hau akordio horretara bilduko litzakela.

...///...

...///...

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, EUDELeK bidali duen proposamenaren arabera 2002 eta 2003 urteetarako udal langileen lan baldintzak onartzea erabakitzen du.

XI.- BALTASAR GARZONEN AUTOAREN AURREAN BATASUNAREN MOZIOA ETA ALKATETZAREN MOZIO ALTERNATIBOA.-

Alkateak esaten du Batasunako zinegotziak ez daudenez, mozioa mahai gainean gelditzen dela.

Eguneko Gai Zerrendatik kanpo ondorengo gai hau tratatzen da:

XII.- ATENTATU GAITZESPENA.-

Alkateak esaten du lehengo asteartean Collado Villalban gertatutako atentatuaren aurrean, Osoko Bilkurak onar ditzan bi puntu hauek aurkezten direla:

- 1.- Antonio Molinaren aurkako erahilketa gaitzestea.
- 2.- Atentatu honetan zaurituta gertatu diren pertsona guztien osatze azkarra desiratzea.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposatutakoa onartu egiten du.

XIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak esaten du guraso izan berri diren Jon Agirre eta Gorka Lamy zinegotziei zorionak ematea jasota gera dadin nahiko lukeela.

Alkateak esaten du gabon egunean eguerdiko ordu batetan, hamaiketako egingo dela Esparru elkartearen, udal langile eta zinegotzientzat.

XIV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...